

## DIRU-ITURRIAK

Argi dago faktore garrantzitsuenetako bat, zerbitzuaren kostua zein izango den zehaztea dela. Gure ikasleei zerbitzu hoberena prezio ezin hobean eskaini nahi diegu jakinduria eta arrakasta lor dezaten. Dena den, badakigu ikasle guztiek ez dituztela behar berak izango eta horregatik hiru ikasketa plan eskaintzen ditugu. Lehenik eta behin, soilik hitz egiteko klaseak biltzen dituen plana eta horren kostua 14,99€/hilabetekoa izango da. Lehen hori aproposa izango litzateke haien hitz egiteko trebetasuna hobetzeko asmoa dutenentzako. Beste hainbatek soilik azalpen teorikoen beharra izango luke eta prezioa, 19,99€/hilabetean. Azkenik, plan osatuena daukagu eta haurreko biak uztartzen dituen da. Azalpen teorikoak eta hitz egiteko klaseak konbinatzen dituen plana. Azken horren prezioa 29,99€/hilabetekoa izango litzateke eta oso aproposa izango zen hizkuntza bat esparru anitzetan erabiltzen jakin nahi duen batentzat.

Halaber, egungo hizkuntza akademia tradizionaletan egiten den antzera, kurtso intentsiboak eskainiko ditugu. Horiek astebeteko, bi asteko edo hiru asteko iraupena izango lukete eta helburua egunean 2 orduko saioak izatea izango litzateke. Denbora tarte horretan hizkuntza azterketa ofizialetarako errepassoak eskainiko lirateke eta bezeroak hizkuntzaren erabileraren eremu biak, hau da, idatzizkoa eta ahoskoa, lantzeko aukera izango du.

ZERBITZUA	PREZIOA
Hitz egiteko klaseak	14,99€/hil.
Azalpen teorikoak	19,99€/hil.
Azalpen teorikoak + Hitz egiteko klaseak	29,99€/hil.
Kurtso intentsiboak	
● Aste 1	12,99€
● 2 aste	22,99€
● 3 aste	29,99€